

4. Pasabidea: Gipuzkoa Etorbidea 16-18

Pasabide honetan dagoen semaforoa Gipuzkoa Etorbideko 5ean dagoen oinezkoen pasabidearekin sinkronizatuta dago (San Antonio), beraz, semaforo honen funtzionamendudenbora aldatzeak aipaturiko pasabidean eragingo du.

Pasabide honetan oinezkoek espaloi bien artean gurutzatu beharreko distantzia 8 m-koa da, beraz, oinezkoak pasatzeko gutxieneko funtzionamendu-denbora 16 segundo dira.

Oinezkoak pasatzeko argi berdez egun dagoen denbora 27 segundo dira eta argi gorriz zain egotekoa 75 segundo.

Ibilgailuen kasuan, argi berdez pasatzeko duten denbora 76 segundo dira eta argi gorriz zain egotekoa 24 segundo.

Pasabide honetan oinezkoak pasatzeko dagoen denbora nahikoa dela irizten da, eta hain luzea izatearen arrazoia San Antonioko semaforoa gorri jartzen denetik semaforo hau gorri jartzen denera arte ingurua libre uztea da, udalerrri barrutik Abeletzeko tunelean zehar datozen autoek N-634 errepidea hartzeko denbora izan dezaten, bide-irteera blokeatu gabe.

Pasabide honetan instalatuta dagoen ekipoa zaharra da eta ezin dira ordutegi ezberdinak ipini lanegunetarako eta asteburuetarako.

